

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako ekonomiak % 3,3ko urtetik urterako hazkundera izan du, Estatukoak baino lau hamarren handiagoa

Datozen hilabeteotan aurtengo ekitaldiak ezarria duen % 2,7ko hazkunde-aurreikuspena hobetuko da

Ostirala, 2018.eko apirilak 27

Nafarroako Barne Produktu Gordina (BPGd) % 1,0 hazi da 2018ko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoko datua hiru hamarretan hobetuz, Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdik ostiral honetan jakinarazi duenez. Haren esanetan, datu honek “Nafarroako jarduera ekonomikoa irmo eta sendo mantentzen dela berresten du, Estatuan zein nazioartean nagusitu den dinamismoaren harira”.

[Nafarroako hazkunderari buruzko datu hau](#) Estatu osorako landutako estimazioen (% 0,7 hiruhilekorako eta % 2,9 urtetik urterako hazkunderari dagokionez) gainerik ere kokatu da.

Urteko lehenengo seihilekoan, Gizarte Segurantzako afiliazioarekin batera, kontsumoari buruzko adierazlea nagusitu da, txikizkako merkataritza eta zerbitzuen negozio-kopurua islatzen duen adierazlea baita, nahiz eta otsailean adierazle honen hazkundera moteldu den.

Ayerdiren esanetan, ekoizpen industrialari eta esportazioei buruzko urteko lehendabiko kopuruek nekazaritzako elikadura-industriaren, metalurgiaren eta sasimanufakturen traxzio-eragina bistaritzen dute; halakoxea izan da kimikaren kasua, jarduera industrialaren tonua mantentzen lagundu duena. Automobilgintzari dagokionez, ekoizpen-eritmo normalagoak berreskuratzeko joera nabarmendu du, eta VWeko lan-egutegien eta fabrikazio-helburuen arabera, horren eragina apiriletik aurrera sumatzen hasiko da.

Industriak enplegua gehien hazi diren komunitateen artean kokatu du Nafarroa

Enplegua oso dinamikoa da adar gehienetan, baina industria da Nafarroa hazkunderik handieneko komunitateen artean kokatzen ari den sektorea, izan ere, hiruhileko honetan afiliatu direnen artean, hirutik bat sektore honetakoa da.

Hazkunde-aurreikuspena hobetzeko aukera

Garapen Ekonomikoko lehendakariordeak ziurtatu duenez, badira aurtengoz ezarri den % 2,7ko hazkunde-aurreikuspena hobetzeko moduko arrazoiak. BBVAK gorantz zuzendu berri du autonomia-erkidegoek datozen bi urteotan izango duten hazkunderaren aurreikuspena, eta Nafarroaren kasuan, goranzko zuzenketa hori 0,2 puntukoa da aurtengo ekitaldiko hazkunderari dagokionez, % 2,8tik % 3ra igaroz, Estatu osorako

aurreikusitako hazkundera baino hamarren bat gehiago.

BBVAren arabera, gauzak ez dira bakarrik aurten ongi ibiliko; horrekin batera, 2019rako aurreikuspenak ere hobetu ditu, bereziki Nafarroari dagokionez, aurreikuspenak gehien hobetu dituzten eskualdeen artean kokatuz.

Azkenik, Ayerdik argi utzi du, gertuko etorkizun ekonomikoari lotutako aurreikuspen onen gainera, “agertoki hori arriskuan jar dezaketen arriskuguneak eta zalantzaguneak daudela, erakunde guztiek ia aho batez adierazi dutenez”. Horien artean, baldintza monetarioak gogortuko diren beldurra edota AEBen eta Txinaren arteko tentsio komertzial eta geopolitiko gero eta handiagoak aipatu ditu, kanpora irekita dagoen Nafarroako ekonomiaren gaineko inpaktuari loturiko aldagaien kaltekoak izan daitezkeen ustetan.